

# berria

03/03/2010

## Bisitariak erakartzeko, irudimena

A. Sarasola.

Lasaitasuna da nagusi edozein astegunetan Irungo Oiasso museoan. Erromatar garaiko eskualdeko herrien mapa batek egiten dio harrera bisitariari sartu orduko. Errenteriako udal euskaltegiko ikasle talde bat batetik bestera dabil, beste inor ez. Astean zehar ikasle taldeak izaten dira bisitari leialenak, museo gehienetan bezala. Asteburuetan jende gehiago badabil ere, jendea nola erakarri dute buruan. Ez dago formula magikorik, baina hartarako bidea argi du Mari Jose Noainek, Oiasso museoeko jardueren arduradunak: "Museoak leku aspergarriak diren ideia hautsi behar da. Bisitari kopurua garrantzitsua dela iritzita ere harekin "obsesionatzea ez dela komeni dio Noainek. Gipuzkoan 50 museotik gora daude, eta gehien urteko batez besteko bisitari kopurua 1.000 eta 5.000 artekoa da. Kopuru horietatik gora dabil Oiasso; Irungo Udalak zabaldu zuenetik, 2006tik, urtean 18.000 lagunek bisitatzen dute. Baina beste zerbaiti ematen dio garrantzia Noainek: museo bizia izateari. "Bilduma oso interesgarria da, baina ikusi duena berriro etorriko da? Erreferentzia etengabea izaten saiatu behar dugu, jendeak jakin dezala beti gauzak egiten ari garela. Bisitariak ohitura hartzea da garrantzitsua, haren ustez, "eta hori ezin da egin bilduma batekin bakarrik.

Zabala da bisitariari eskaintzen dieten menua: bisita gidatuak, hitzaldiak, tailerrak, Xantalen ermitako nekropoliko bisitaldia, erakusketak, bideo emanaldiak, arkeologiari buruzko zinema jaialdia... Jardueretan parte hartzen dutenak "konektatuta daude museora. Arkeologia bidaiak ere antolatu dituzte. "Hala lortzen dira emaitzak. Esaterako, iazko zinema jaialdian 200 lagun bildu ziren egunero. Urtebetetze festak ere antolatu izan dituzte. "Oraindik jendeak pentsatzen du museoa leku aspergarria dela, etortzeko kultura asko interesatu behar zaizula; hori aldatu behar da. Kontzeptu hori hautsiz gero, museoek gora egingo dute. Aldundiaren planaren berri badu Noainek, eta elkarlanean aritzeko sareak antolatzea ontzat dauka: "Inork pentsa dezake lehiak sor litezkeela, hobe dela bakoitza bere kabuz aritzea, eta ez da horrela. Museoen munduan sareak oso interesgarriak dira. Gaikako antolaketari ere ongi deritzo. "Batera joan beharko genuke, memoria historikoak eta sozialak dena biltzen duelako, eta elkarrekin Gipuzkoaren ikuspuntu orokorra isla dezakegulako.

### Elkarlanaren alde

Aldundiak aurkeztutako plana begi onez ikusi du Zumalakarregi museoeko Mikel Alberdik ere; bai San Telmo museoaren aholkularitza, bai Gordailuaren baliabideen eskaintza. "Ikusiko da ea funtzionatzen duen, baina orain arte ez zegoen halakorik. Elkarlanean aritzea ontzat jo du

Ormaiztegiko museoko dokumentazio zerbitzuko arduradunak. "Gure artean askotan nahiz eta gertu egon geografikoki edo gaien aldetik, bakoitza bere aldetik dabil. Elkarlana beti da ona. Dena den, museoen tamaina, jabetza edo egoerak hain ezberdinak izanik, denen artean ados jartzea zail ikusten du. "Urte batzuetan museoak ia edonork irekitzen zituen. Eta, hasteko, lehen gaia hauxe izan daiteke: zeri deitzen diogu museo?.

Ikasle talderen batekin egingo du topo akaso aste barruan Zumalakarregi museora doanak, baina ez du bisitari kopuruak itoko. Aldundiaren lau museoetako bat da, eta 8.000 eta 10.000 bisitari artean ditu urtean.

Museoaren webgunea bisitatuz gero -[www.zm.gipuzkoakultura.net](http://www.zm.gipuzkoakultura.net)-, egiten duten lanaren ideia bat har daiteke: erakusketak, hezkuntza zerbitzua, 4.000 grabatuz osatutako XIX. mendeko albuma, dokumentazio zentroa... Bereziki zaintzen duten komunikazio tresna da webgunea; baina, horrez gain, material didaktikoa sortzen eta merkatutik piezak eskuratu eta katalogatzen aritzen dira hango langileak, besteak beste. Aurrekontua, aldiz, "oso eskasa, gero eta eskasagoa dela dio. Oraindik ez daukate erabakita, baina litekeena da ordutegiak murriztu behar izatea. Beste gune asko egoera berean daudela dio, "zenbat eta txikiago, orduan eta egoera zailagoan.

Guggenheimen "harlauza

Bisitariak nola erakarri asmatzea ere zail ikusten du Alberdik. "Gainera erori zitzaigun Guggenheim efektua, eta horrek izorratu gaitu beste guztiok. Handik milioi bat pasatzen badira, jende guztia hasten da hortik kontuak egiten, eta ez dira ateratzen. Zer egin jendea erakartzeko? Nik ez dut sekreturik aurkitzen; hogei urte daramatzat, gero eta gustukoago ditut egiten ditugun gauzak, baina ez dugu asmatzen. Hori nola aldatu ez dakiela dio. "Guggenheimen kontua guretzat harlauza da. Eta horrek ere zerbait esan nahiko du; hara joaten diren asko besteetara ez direla joaten edo, ez dakit; horrek bizitu du kulturarekiko maitasuna euskaldunon artean? Bada, ez da nabaritzen.

Gune txikiagoa da Oiartzungo Herri Musikaren Txokoa. Zortzi urte bete zituen herenegun zabalik, Juan Mari Beltran museoa eratzeko lanetan 1995ean hasi bazen ere. Ordutik, musikaren munduan erreferentzia bihurtu da. Ikasleak eta musikari lotutako talde asko biltzen direla azaldu du zuzendariak: Tarragonako txalaparta eskola, Aguraingo Musika Banda... Batez beste, urtean 3.500 bisitari ditu, gero eta gehiago, baina leku falta eta aurrekontu urria ditu gabezia nagusi. Udalak du titulartasuna, baina fundazioa sortzekotan dira.

Hiru hilez behin herri musika emanaldiak egiten dituzte, urtero jardunaldiak eta, berriki, herri musika eskola sortu dute. Hala joango zaie jendea, Beltranen ustez. "Museoak ez dira gordailuak; leku biziak izan behar dute. Inguruan ditugu eskolak, musika jotzen duten ikasleak, inauterietan aritu den jendea... Eta historia bera da. Museoak historiaren isla izan behar du, baina historia bizia. Sarean lan egitea "beharrezkotzat jo du. "Garrantzitsua da eta agintariek lagundu egin behar dute. Dena den, arazo handiena ekonomikoa da, eta horretan apustua egin behar dute.